



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

RESTI PILOTALEKUA

Araudia 2021/02/18

ORDUTEGIA: 16:00etatik 20:30era.

- 2020/21 ikasturteko ordutegian, kirol-taldeek dute lehentasuna. Beraz, kirol saioa dagoenean, frontoian ezin du beste inork egon, eta bertan bazaude irten mesedez. Ordutegia pilotalekuko taulan ikusgai.
- Astegunetan, 16:00etatik 17:00etarako tarte (ostiraletan izan ezik) JOLAS LIBRERAKO izendatua dago.

Covid-19 gaitza dela eta, pilotalekuaren erabilerarako jarraian zehazten diren neurriak:

NEURRI OROKORRAK:

- Gomendatzen da, ateri den egunetan gutxienez kanpoko espazioak lehenestea. Covid-19aren kutsagarritasuna biderkatu egiten da eremu itxietan.
- Pilotalekurako sarrera Haurreskola aldeko atetik egingo da eta irteera futbol zelai aldetik. Ezinduen eta haur-aukiak dituztenen kasuan bai sarrera bai irteera Haurreskola aldetik egingo da, aldapa dagoen aldetik.
- Frontoira sartzean eta frontoitik irteteen eskuak bertan kokatutako gelez igurtziko dira edota bertako komun publikoan ur eta xaboez garbituko dira.
- Erabiltzaileek jende pilaketa saihestuko dute eta segurtasun distantzia errespetatzeko ahalegina egingo dute.
- Pilotalekuan ezingo da jan, ezta edan ere. Salbuespenak: ura edatea eta haurren askari edo merienda. Azken honetan, eguraldi ona bada kanpoan meriendatzea hobesten da eta txarra bada Pilotalekuko goiko pasilloan edo gradetan eserita, ez kantxan. Merienda-hondakinak dagokion eran sailkatuko dira frontoiko hondakin-ontzietan.
- Erabiltzaileek frontoia garbi mantentzen lagunduko dute, hondakinak ez dira lurrera botako: zorroak, pipa-azalak... Erratza eta pala utziko dira erabiltzaileen eskura halako kasuetan garbiketa egin ahal izateko.



ZALDIBIAKO
UDALA
zaldibia.eus

- Maskara jantzita izango dute erabiltzaileek. Salbuespenak kirol jarduera antolatuetan izango dira, bakoitzari dagokion baimenean jasotakoa bete beharko da kasu hauetan.
- Arreta jarriko da jende askok uki ditzakeen azalerak ukitzean, ahal dela saihestuz: grada-eserlekuak, goiko pasilloko baranda, ate-heldulekuak...

JOLAS ETA JARDUERA LIBREARI DAGOKIONEZ:

- Adin txikikoak helduen ardurapean egongo dira erabilera baldintza hauek betetzen direla ziurtatzeko.
- Maskara jantzita izango da uneoro (6 urtetik gorakoen kasuan).
- Eskalatzeko txokoa erabili aurrez eta ondoren eskuak gelez igurtzi edo ura eta xaboiarekin garbituko dira.

Zaldibian, 2021eko otsailaren 17an.



ZALDIBIAKO
UDALA

Eztitxu Mujika Mariezkurrena
Zaldibiako Alkatea